


7ARR

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
17 n. ZENBAKIA
URTARRILLA
-1979-**



Fruniz ethez banatua fedez alkartua



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

BESTE URTE BAT

Urte barria etorri jaku, itxaropenez, barrekari, gabon-ostean.

Eta urte barri onek illuntasun aundi bat dauka barruan, geroak, etorkizunak beti izaten dauan illuntasuna.

Zer izango ete da urte onetan? Onurak ala kalteak ekarriko eta dauskuz? Nekea ta lana ala nekeen eta lanen furtu apurren bat be bai?

Geroa illuna da, baiña argitasunaren zain dago... Eguna dator.

ERRIAN

Gure Erriaren arazorik aundienetariko bat, askatasuna da.

Orretara, orren billa doaz gaurko lanik bizienak eta beroenak.

Eta askatasun ori aurten, laster, araudi baten idatzita geratuko da.

Aurten izango dira Araudi edo «Estatuto» bidez ibilten asteko egunak.

Eta gero zer?

Or geratuko ete da gure aurrerabidea?

Urte batzutarako bai, bear ba'da, baiña askatasun ori azten diardun izaki bizia izango, geroago ta aundiagoa agertuko jaku.

POLITIKEA

Askatasuna lortu eta gero sartzen da politikea edo erriak askatasunean jaurriteko bidea.

Gaurkoz, askatasun-aurre onetan, bide bi agertzen dira, eta ez beti alkarren lagun: Izkilluen bidea eta alkar-izketearena.

Izkilluen bidea, bildurgarri agiri da, eriotzak, odola ta negarra erakusten dauskuz.

Alkar-izketearena luzeegia dala dirudi, azpergarri biurtu jaku, artegatu egiten dau gure Erri eroapentsua.

Zer ikusiko ete dogu bide laban onetan, politikearen bidean, urte barri itxaropentsuan?

EUSKEREAA

Bere nortasuna ondoen erakusteko, erriak daukan bidea, bere izkuntzea da.

Izkillu-bidea ta alkar-izketa-bidea antzuak ba'dira, erriaren bizia galdu ez dagigun bide bakarra, onena beintzat, bere izkuntzeari ta kultureari eustea izango dogu.

Geituko ete dira gure Erriaren euskaldunak urte barri onetan? Ala gitxitu?

Ikastoletan eta goragoko ikas-mailletan euskerea geiago sartuko ete da?

Izkuntza-bizia barru-barruan dauken euskalkiak indartu ala idargetu egingo ete jakuz?

Idazleak eta irakurleak ugaritu ala urritu egingo ete dira?

Euskaldun askok dirua emonaz euskereari laguntzen dautsoela uste dabe, eta ez dagoz ain oker, baiña geiago laguntzen jako irakurri ta idatziaz.

KULTUREA

Izkuntzeagaz batera, erriak bere kulturea atera bear dau aurrera.

Eta kulturatze-bide au txikitatik artu bear da, baiña eldu-aroan itzi barik.

Batez be, txikitan euskal-kulturea eskuratzeko biderik izan ez dogunok, eldu-aroan bear doguz kulturatze-bide ugariak eta zabalak. Orrerako lagundu bearako dauskue erri-jaiak eta dantzak, ikastaroak eta gau-eskolak, eta abar.

Izparringiak eta aldizkariak be, kultura iturri izango jakuz, irakurten ba'doguz beintzat.

Eta liburuak. Ez da naikoa ederrak diralako, erostea. Irakurri egin bear dira.

Aspaldion liburu-argitaratze au urritu egin dala diño, ia urte barri onetan ugaritzen dan.

NASAITASUNA

Aspaldiko urteetan gure Erria estu bizi da.

Erriak bere kondairan ondo joateko nasaitasuna ta bakea bear ditu.

Agertuko al dira Urte barri onetan.

Urte Barri ON guztioi! Izan beite urte onurakorra Erriarentzat.

Euskerea, Umeen Buru-austea

IKUSI TA IKASI

Ainbat euskaldunen agotan erabilitako esaldiak ditugu bi oneik: «umearen zentzuna, etxean entzuna» eta «zer ikusi, a ikasi».

Euskera arloan be erabili daitezkezan esaldiak diralakoan nago.

Zenbat eta zenbat ume bialtzen ete dira ikastoletara, eta txean euskerarik egin ez?

Baiña... ez da dakie!

Jakiña guraso askok itzik ere ez dakiena; baiña ikasteko aalegiñik egiten ez dabena ere egia aundia da.

Eta ona emen umeen buru-austea: zergaitik nik ikasi bear eta eurak ez? Zergaitik niri agindu eta curak aalegiñik ez?

UMEA IRAKASLE

Adiñeko askok jokabide onetarako arrazoi ugari izango dabe, eta geienak aitatu dagikeena auxe: astirik eza.

Egia esan, arrazoi onen aurka jokatzekorik ez dago, egunak 24 ordu baiño ez daukaz eta.

Baiña... pentsatu dagigun beste au: ikastarora joanda bakarrik ikasi daiteke, ala? Ez ete dago beste biderik?

Bai, ba dira beste bide batzuk, esate baterako ikastolara bialtzen dan ume ori irekasle biurtea.

Bear bada, ez dogu gorengo irekasle izango, baiña bai bide on eta egoki bat.

Urteak igaroz, ume orrek gauza asko irekatsi dagisgeguz, eta orrela egin ezik ezer ikasi barik geratuko giñake.

BURU AUSTE BAT

Baiña jokabide orretan ikasi barik geratzea ez da txarrena sarritan.

Ba dago txarragorik, esate baterako: umearengan beragan sortzen dogun buru-austea.

Ume batentzat bere gurasoak lakorik ez dago; oneik egiten dabena, ondo eginda dago.

Baiña zelan ulertu berari gauza bat agindu eta curak beste bat egitea?

Ona emen umeak inoiz ulertuko ez dauan arloa.

Ona emen ume askoren euskeraganako zaletasun ezaren zergaitia edo susterra.

BIDE OKERRA

Egoera onetan euskera edo euskeraz ikasteko orduan umeak artu dagikezan jokabideak ulertzekoak dira.

Leenengo eta bein, umeak erreztasun batera joko dau, eta praktikan bere izkuntza erdera dala baieztutzera elduko da.

Esan egingo ez badau be, eguneroko ekintzan orrela da.

Bigarren lekuan, naiz eta etxekoen eta ikastolakoen teoriak onak izan, ulergatx egiten jakoz.

Ez ditula ulertzen be ez dot esan nai, baiña bai gogor egiten jakona.

Aldatz-gora onetan bere gurasoen jokabideak eragin berezia izaten dau, eta naiz eta ikasi bearra izan, gurasoak erabiltzen dabena izkuntza bizitzarako egokiagotzat artzen dau.

IRAKASLEAK EZIN

Bestalde, egoera onek buru-auste gogorra sortzen ba'daustso eta izkuntzetarako erreztasun aundirik ez badau, EUSKERA berau be gorrotatzera eldu daiteke.

Zelan irekatsi egoera onetan Euskera?

Zelango jokabidea artu irekasle batek?

Zelango notak ipiñi?

Beste irakasgai edo asignatura baten neurrian epaitu: bai ala ez? Eta abar, eta abar.

Guzti onetatik ikusten denez, Euskera irekastea «il edo biziko» arazoa bada be, ez da makalagoa zelan irekatsi jakitea.

Eta irekatsi esatean, ez ditut irekasleak aitatu gura, gurasoak baiño.

Sendi bizitzako jokabideak irekasleak izan dagikezan orduak baiño askoz be indar eta eragin geiago dabe.

«Zer ikusi, a ikasi». Etxean ardurabagetasun teorikoa edo praktikoa bada, zer esanik ez ume orrek ikastolan be jokabide bardiña izango dauana.

Onela izanik irekasle baten lana erdi gauzeztana izaten da.

DAKIENAK KALEAN

Antzerako bat gertatzen da Euskera dakien sendi asko eta askotan be.

Askok eta askok, (edo ain ezkorra ez izateko, batzuk) etxean bakarrik egiten dabe.

Kaleratu ezker, edo kaleko jokabide xec askotan erderara jotzen dabe.

Umea ez da onetan tentela, eta bereala konturatzen da.

Ondorioz, beretzat Euskera etxerako izkuntza bakarrik da; kalean beste bat erabili bear da-ta.

Jokabide onetan Euskerak erderak baiño garrantzi gitxiago dau.

Erderaren laguntzaz bizi daiteke, baiña euskeraz ezin da.

Euskera ez da dirubide arloetarako.

INDARGETU

Jokaera onen ondorioz, ikastoletako aalegin asko eta asko indargetu egiten dira.

Esate baterako, umeak Euskeraz irakurtzeko edo ikasteko gogo aundi barik ibiltzen dira.

Eta ibilli bakarrik ez, agertu era bai: «zertarako ikasi bear doguz gauza oneik (euskal kondaira eta abar) euskeraz, erderaz bereala eta errezago ikasi dagikegula?»

Edo beste au: «Ez daust ardura euskera ikasi ez arren».

SUSTERRA

Gaur bertan kurso bategazko alkarizketa batez lortu dituan erantzunak dira.

Zer esan nai dabe esaldi orreik?

Non dago ume orreien pentsaeraren susterra?

Zelan berbiztu orreingan Euskera zaletasuna?

Teoria utsaz bakarrik ez beintzat. Gurasoengandiko jakabide barri batez... ba liteke.

Eta au probatzeko, ikustea baiño ez dago kale-agerraldi batetarako ume oneik dabena poz eta bizitasuna.

Nondik sortuta? Zer esanik ez gurasoen erakus onetatik dana.

GUZTIOK EUSKERA

Guzti au ikusirik, beste au be esango neuke: gure izkuntzaren il edo biziko arazoa ez dala ikastolena edo izparringiena edo idazleena bakarrik. Ez dala izkuntza arazo bat bakarrik.

Izkuntza arazo au arazo politikoa bat ba da.

Giro bat ez da taldeka bakarrik sortzen. Giro bat erri osoaren lana da, eta lan nekeza.

Eta onetan ez daukagu ezbardintasunik egin bearrik: danok alegindu bear gara, edo obeto: danok egin egin bear dogu, jakin edo ez jakin, euskera.

Zelan? Naiko errez, dakigunok euskera egiñaz, eta ez dakienak zelan edo alan ikasiaz eta irekasteko eskatuz.

Pentsatu dagigun zenbat ume dabilan ikastoletan eta zelango lana egingo leukeen sendietan ez dakien gurasoak jokabide au artuko ba'lebe.

Bide au artzen ez dogun bitartean, umearentzat gure Euskera au lan nekeza eta, sarritan, gogaigarria izango da.

Lagundu dagitsegun biar eguneko euskaldun gizon onei.

LEGARRETA'tar Josu'k

AMEN

AKERRA ELEIZAN

Eguna illuntzen asi zanean, aker bat sartu zan elizan.

Sakristau-mutillak, atea itxi orduko, beti lez, batean euskeraz bestean erderaz ots egin eban:

—Inor al dago? Hay alguno?

Akerrak ez eutson ezer erantzun, eta kris-kras atea itxika etxera joan zan mutil ori.

* * *

ANDRAK BEGIRA

Gaututa gero, ibillaldiren batetik etozan emakume batzuk ots aundiak entzun ebezen, eta elizaren atera urbilduz, adi-adi geratu ziran barruko a nor ete ziteken jakin nairik: ala lapurren bat, ala beste munduko norbait, ala zana ta zalakoa...

Barruko akerrak atea zabaltzeko erabiltzazan dranbaladak!

Bigirazoleak, bildur gorritan, abade etxera joan ziran ariñiketan eta arnas estuka. Eta abadeari:

—Don Jose, Don Jose-esan eutsoen—, inpernuko deabrua dabil elizan. Betor konjuruak egitera, betor len bai len!

* * *

SAKRISTAU BILDUR

Abadeak, emakume biak lagun ebazala, sakristauarenean ots egin eban; eta betik gora ta goitik bera, ataritik abadeak eta leirotik sakristauak, autu-mautu luzea izan eben:

—Baiña, Jauna— zirautson sakristauak— baiña jauna, nik ez dodala sekulan konjuraraten ikasi... Berorrek bai, berorrek ikasi dau... Eta berorrek ezin badau, or ditu ain jainkolario diran emakume orreik...

—Baiña Luziano— au zan sakristauaren izena— baiña Luziano, ik ez dok beste egin-bearrik izango... urrintxo agoala, nik esango

dodanari AMEN erantzun besterik ez. Ator, Luziano, ator!

* * *

ELEIZARA

—Jauna, niri neuri ez deust inpernuko etsaiak iñungo bildurrik. Andra bi orreik, barriz, beti dagoz elizan sartuta..., Jesus ta bat alan be!

—Ator, Luziano, ator, —esan autson andratako batek.

—Ez..., giltza, Joxepa..., eta or konpon!

Abadeak..., ez dakigu zelan, baiña zuritu eban, azkenik, gure sakristau ori, eta an joian beste iruron atzetik, narraz eta tarraz.

* * *

ADARRETAN

Akerra, bitartean, ate ondoan ixil-ixillik, andik noz urtengo zain.

Laurok elizara aldu ta, andra biok ototzean, eta sakristau ori atze-atzeka joiala, abadeak... AITAREN, SEMEAREN... eginda, nekez bazan bere, sarrailla-zuloan giltza sartuta, kris-kras egin ebaneko, akerrak bere adarretan artuz, aidean eroan eban parroku gaixoa.

* * *

AMEN

Sakristaua ariñiketan, eta andrak karrika joiazan bitartean, abadearen berbok entzun ebezen:

—Luziano! eldu egistak! Inpernuko deabruak naroiak-eta!

AMEN, AMEN zaratatsuaz erentzunez, bere etxean sartu zan laisterka batean Luziano, sakristaua.

ESTONBA'tar Mañuel'ek



Zuberoa, Zuberoa
emakume edo igali
izpilluen izpillu
Ez dakit zure baitan erresiñolaren bat lo ote daitzan
ez dakit zure belardi azpian inor pitxiak lantzen
ari ote den; astiro.
Ez dakit ere arto-saillik ba ote duzun
ez eta zein den ere zure sagar-azalen kolore
Noiz dagi euri Zuberoan?
Nola dute begiratzen emakumek Zuberoan?
Nola da iltzen Zuberoan? Nola? Nola?
Zutaz EZ DAKIT DEUS ERE
EZ ZAITUT EZAGUTZEN
Bakarrik zure kantaren bat entzun dut
ta orregaitik zaitut maitatzen
orregaitik bakarrik nauzu zure alde

Bataren batek, au abesti bat baño ez dala esango
dau. Ta arrazoa eukiko dau, bai, au abesti bat da,
baña abesti bat baño geiago da. Lertxundi'k bertso
oneik abestuten dauzanean ez dira gure belarriari
goxotasuna emoteko bakarrik, Zubero'ren izana
adierazteko baiño.

* * *

NON DAGO?

Zer esagutzen dogu Zuberoa'taz?
Bai ba dakigu Euskal Erriko zazpi Erriko zazpi
errialdetariko bat dala, baita iñoiz entzun dogu Zube-
roko pastoralen bat.
Baña zer geiago?
Bai, benetan esan geinkela ez garala asko gogora-
tzen errialde onetaz.
Geografiari begiratuta Añamendiren ipar aldean
eta Benafarroako sortaldean dagoela esan geinke.

* * *

TXIKIENA

Euskal Erriko errialderik txikiena da, 789 kilometro
lauki baño ez dauz.
Menditsua da eta beren ego aldean Irati pagadia
dago, Europako aundiena.
Ibairik luzeena Uhaitzaindi (Saison) da, 74 kilo-
metro dauz, eta Aturri ibai nagusiaren adarra da.
Bere uri-burua Maule da eta 5.000 bizilagun dauka,
beste uri batzuk Atharratze (Tardets-Sorholus), Iruri
(Trois villes), Iribarne (Libarreux) dira.

* * *

ZUBEROA EZAGUTU!

BATZARRAK ETA ONDAMENDIA

Kondaira aldetik auxe esan geinke: Ziuberoak,
beste. Euskal Errikiak lez, bere batzarrak eukazan.
Bizkaiak Gernikan egiten eben lez, edo Nafarroak
Iruñian, edo Laburdik Ustaritzen, Zuberoak'oak Mau-
len ziran.
Baña XVII'garren gizaldian prantzesak kendu
naian aurkitzen doguz, orregaitik zuberotarrak izki-
lluz jagi ziran Matalas'eri jarraituaz, baña etsaiak
asko ziran ta antxe asi zan Zuberoaren ondamendia.
Matalas arrapatu eta il egin eben baña il baño len
au esan eban: «Dolu gabe iltzen naiz Zuberoagaitik,
agian jeikiko dira egiazko zuberotarrak, egiazko
euskaldunak tirano arrotza iltzeko».
Gero, Frantziako Matxinada Nagusian Zuberoak
galdu eban, obeto esanda kendu egin autsoezan bere
eskubide guztiak Frantzia'ko beste probintzi lez
itxiaz.

* * *

JAKINTZA

Baña Zuberoa zeozegatik ezaguna bada, bere
erri-jakintzagaitik da.
Nork ez dauz ikusi iñoiz Zubero'ko maskaradak
edo Zuberoako pastoralak?
Edo nork ez dau entzun ango abesti gozoren bat.
Bai, benetan ez da arritzekoa gaurko euskal abesla-
riak edo dantzari taldeak Zuberoara begira egotea!
Ain aundia da bertako jakintza!
Zuberoago jakintz. Iturriaren ura iñoiz ere ez dala
amaituko esan geinke erratuteko bildur barik.

* * *

ILTEN!

Baña zer dago abesti eta dantza onen atzean?
Errialde onen egoera larria!
Zuberoa gaur iltzen dago!
1960'ko urtean 20.000 bizi-lagun eukezan, 1970'ko
urtean be 20.000 bizi-lagun ziran.
Gazteak joan doaz kanpora lan-billa, Zuberoan
Maule inguruan izan ezik ez dago lantegirik.
Maule berak be 1960'tik eta 1970'ra 300 bizi-lagun
geiago baño ez dauz: 4.700 1960'an eta 5.000, 1970'ean.
Zubero'ko urten-bide berezkoa nekazaritza izan
leiteke baña Frantzia'ko gobernuak gurago dau gaz-
teak Paris'era joatea lanaren billa, eta bitartean
Zuberoa «Kolonizatu» turisten bidez.
Au da gaurko Zuberoaren izana errialde au Laburdi
eta Benafarroa lez, turista erri biurtzen da.
Pentsa dagigun España'ko Andaluzia'n jazoten
dana eta Ipar-Euzkadi'n jazoten dana eukiko dogu.
Penagarria baña egia!
1979'ko urtea asi barri daukagu, aurten be Ipar
Euzkadi'tik 2.000 gazte Paris aldera joango dira
lanaren billa, eta bitartean zer?

ENDIKA

JARRAIBIDEA

POZ-AURPEGIAK

II Jon Paul Aita Santua autatu ebenean, alde guztietan poz-aurpegiak agiri izan dira.

Zergaitik izan ete da?

Alde batetik Italia'tarra ez zalako.

Eleizeagan ziur sinisten dogunok, ba dakigu Aita Santua emengoa naiz angoa izatea bardin dala, baiña siniste makala dabenak, edo siniste bakoak, Aita Santua beti Italia'koa izateaz, Eleiza italiarra bakarrik dala uste izaten dabe eta ez katolikoa.

Orain erbestetar batek San Pedro'ren jarlekua artzeaz, Eleizeak katoliku usain geiago dauka.

* * *

ERRI NEKETSU BATEKOA

Aita Santua Polonia'tarra izatean, gure poz-tasuna geitu egin da.

Erri ori neke ta samintasun ikaragarri- artean beti katoliku izan da.

Benetan zor jakon olako erri bateri Aita Santu bat izatea, bere endakoa, bere odolekoa, bere erri-errikoa!

* * *

JAKITUNA

Aita Santu barri au gizon jakituna da benetan. Idazle ugaria, irakasle trebea, gizon-gizona, biotz aundikoa ta maitagarria.

Polonia'n berari begira pozez zoratuta dago erria.

Begiratu dagiogun erri miragarri orreri, gure jarraibidea da ta!

* * *

POLONIA GURE EREDUA

Polonia'n geienak oso katolikuak dira, agintariak komunistak izan arren.

Gaztedirik geienak eleiztar iraun dau, langilleak bardin gogor eta kementsu Eleizeagaz jarraitzen dabe, benetako kristiñauak izanez.

Euskalerrria be gizaldi askotan kristiñau izan da, baiña oraingo urteetan, egundo uste izango ez genduan beerakadea emon dau.

Asko dira Eleizea alde batera itzi dabenak, gazteak eta langilleak.

Gure Erria, euskalduna izan dalako, oso zigortua izan da eta Eleiz-agintari askok, geiegi erri-agintariakaz alkaturik, Eleizatik kanpora bialdu ditue erritarak.

* * *

ESKUBIDEAK

Euskalerrriaren eskubideak ukatuaz eta nazional-katolizismoa erabilliaz erritar-mordo aundia Eleizatik atera dabe.

Polonia'ra begiratu-bearrean aurkitzen gara euskal-Eleiza ta katolikuok.

Eleizako nagusi askok belauniko parka-eske jarri bear dau erriaren aurrean eta Eleizan gagozan guztiok geure gizontasunaz, geure otoiaz, geure eredu ta jarraibidea, Eleizatik urten dabenai, abertzale ta aurrera-zale, sozial arduratu Eleizan izan geintezkzala erakutsi bear dautsegu.

* * *

GURE ALEGIÑA

Guztion artean, ekin eta ekin, lan eta lan, jo ta ke, alegindu bear gara gure gazte ta beargiñak zarren sinismen eta oituretara biurtu daitezcan.


Egia da, joan diran 40 urteetan egin dan lan galgarria zuzentzea ez dala gauza erreza, baiña guztiok alkaturik lan egiten ba'dogu, gure Erriari beste oillar batek joko dautso.

Guztion artean Eleiza garbia egiten alegindu gaitzean. Sinismen, askatasun, zuzentasun ta maitasun bideetatik.

Izan gaitzean, Polonia'ko Eleizearen antzera, benetako eleiztar, erriaren eredu, munduaren jarraibide ta batera euskaldun zintzo.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

Bakartadea



James J. Lynch sikologoak munduarentzat dei bat dauka. 271 orrialde luze ta jakintsu dakarskuz zenbakiz beterik. Eta gizaldi-etan zear olerkariak esan ebana bera diño: Bakartadeak gizona il egin leike.

* * *

Lynch'en liburu ori asko saldu da, «best seller» edo geien saldua ez ba'da be.

Bere eritxiak indartzeko, Lynch'ek Laterri-Alkarteko Nevada ta Utah alderdietan, 1960'an jazoriko eriotzak dakarskuz.

Alkar-auzo diran lurralde bi oncik egurasti-giro antzekoa dauke, errenta eta, ezikera-maillak be antzekoak, biztanletza bardiña.

Alan be Nevada'n ogei ta bost eta iurogei ta bost urteko andra-gizon zurien artean eriotz geiago izaten dira. Utah eriotzaz gitxienetarikoa da.

Utah'en jan-urriak gorde eta ekiñaldiak egiten dabez, Nevada'n ostera, joku-olgeta eta ezkontza-austeak ikusten dira. Ezkontza-austearen Meca esaten jabe.

* * *

Utah'eko biztanleak geienez mormonak dira, tabakorririk ez dabe erreten eta akoolik be ez dabe edaten. Ezkontzak iraunkorrek eta sendi-lotura pozkorrek daukez.

Laterri guztiak Nevada'ren zenbaki-maillara elduko dirala, iragarten dau Lynch'ek. Orretarako jazoera batzuk dakar.

1975'garren urtean milloa bat ezkontza-auzte egin ziran. Urtearen barruan sasi-jaiotzen eunckoa asko goratu da. Langilleak lan eta atxe asko aldatzen dabez.

Ainbeste oitura txarren artean, gure Euskaldun artzaintaldeak Ipar-Amerika'n eredu izan daitezke: Nevada'n,

euren bizimodu zeregintsuaz, euren bakartadea ondo daroe, orretan Euzkadi'ko etxeetan izan zituen oitura zarrari jarraituez. Ardiak zaintzen eta aberreen arduraz ango mendietan irabazi onak ateraten dabez, neurri aundietako zelaietan biziaz.

* * *

Lynch'ek bere lanean, bakartadea neketsua dala diño. Eta ezkonduen egocrea be ez da credu betea...

Ezkonduen artean maitetasun aberatsa izaten da, eta ez gitxitan, baiña asko ezkontzea ausita bizi dira.

Alargunak erakusten ditue maitasuna ta alkartasuna galtzearen ondorenak.

Naigabetuen artean ori argiro ikusten da. Giza-taldeak, benetan, biotz urratuz ilten dira.

* * *

Nire ardurea, giza-talde askoren bakartadea ezagutzea da.

Gauza guztiak gaurko gizartean, askatasun eta norbere jabetasunaren atxakiz saltzen dira.

Eta zer dator ortik?

Askatasuna, bitara artu leiken berbea da. Azalpena bear dau.

Bakartadea gaiso-aldi baten agerkari ta agertzea da.

Euneko 50 uriko ume daukazan laterri bateri, oñarriak uts egiten dautsoe.

* * *

Ikastolak Elizatik aldendu eta sinismenik ez irakasteko diño. Eta benetan materialismuaren fedea irakasten dabe.

Fedea jakintza baiño aurrerago, arago doa ta Jesukristo'k, fedea bakarrik salbauko gaituala diñosku.

LETONA'k



GABONETAN, ZORIONAK

Jaio da ume Jesus
Argi ta Maitasun,
Biur da gizonentzat
Benetako lagun.

* * *

Urteak joan da etorri
Gure itxaropen
Mundu au aldatzea
gura dogu goren.

* * *

Zelan lortu al leike
Elburu gorena?
Ete da erarikan
Lortu leikeena?
Illuntasun-ludian

Danak gau dirudi,
Jesusen argiagaz
Egia da agiri.

* * *

Jesusen maitasuna
Bakeren oñarri
Erein, zabal azi au
Ugari ugari

* * *

Orrela guretzako
Gabon ta zorion
Izango dogu bai ta
Urte barri on on.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

GABONETAKO UME-KANTAK

1

Seintxu txiki ta polita
jaio jaku Belen'en,
Bera gurtzera guztiok
jun bear du len bait len.
Agur Maria, agur Joseba
Agur Jesustxu agur, agur agur.

2

Jesus dogu Maitasuna
segi danok Berari,
OLAN SEGITZEN ba'dogu
BAKEA irabazi.
Agur Maria, agur Joseba
Agur Jesustxu agur, agur agur.

3

Maitasuna dun lekuan
ez ditugu nasterik,
ez dagon lekuan barriz
NASTEIA ugaririk.

4

Jesusen Irakatsiak
bear dituguz artu
jarraituz danok eurekaz
eingo gara gaizkatu.
Agur Maria, agur Joseba
Agur Jesustxu agur, agur agur.

5

Geien geienok Ludian
bizi gara aztute,

orrexegaitik nasteak
arki doguz nik uste.
Agur Maria, agur Joseba
Agur Jesustxu agur, agur agur.

6

Sendi onak izateko
SENDI DEUNAZ PENTSATU,
Maria, Jose ta Jesus
sendi onan modelu.
Agur Maria, agur Joseba
Agur Jesustxu agur, agur agur.

7

Jesus Jainkuak diñosku
Alkar MAITATUTEKO,
agindu obarik ez dau
Ludia onduteko.
Agur Maria, agur Joseba
Agur Jesustxu agur, agur agur.

8

Etxe ontako guztioi
Agur orain egiten,
ta GABON zoriontsuak
danok on igaroten.
Agur Maria, agur Joseba
Agur Jesustxu agur, agur agur.

Aurrak umeak, etxeriketxe Gabonetako
kantak kantatean, kanta onek'be.

AZPEITIA'tar Gotzon'ek

ALBISTARIEI (Euskalzaletan)

Ezin geintek ez larregi arrotu. Ezin geinke esan euskerazko albistariak (astekari naiz osteango aldizkariak) oiartzun andirik, entzute andirik daukenik munduan.

Nekez bizi, irakurle gitxi batzuk nekez euki, eta, orrez ganera, ixiltasuna, aintzat-eza inguruan.

Urte bete da liburu bat agertu zala, Euskalerrian gizaldi onetan izan diran aldizkarien barria emon gurarik.

Euskalerriko aldizkaritzaren atsegina atsekabeak azaldu nai zituen.

Eta euskerazko aldizkarien izenik be ez ekarren. Euskera utsezko batenik be ez gero.

Euki, guztitarikoak euki izan doguz: asterokoak, illerokoak eta egunerokoa be bai bat, EGUNA, iru-lau illabeteko bizia gitxienez izan ebana. 1937'n, maiatz-erdirarte.

Esan dodan liburuan, ez onen ez besteen aitamenik ez dugu aurkitzen.

Euskera-erderazkoak batzuk, bizi laburrekoak izan arren, luze ta zeatz aitatzten ditu; euskera utsezkorik bat bera be ez.

* * *

BIZKAIA AURRELARI

Bizkaia izan da emen euskal-albistaritzan aurrelari.

1897'n sortuko zan EUSKALZALE.

Bidasoaz andiko euskaldunak ba-euken ordurako eurena, ESKUALDUNA izenekoa, eta izen bat azedo besteaz, gaurko egunotararte izan dau jarraitzailelerik.

Iparraldeko euskaldunak doguzalakoak, beste gauza askoten lez, emen be aurrelari izan doguz.

Gu baiño lenago itxartu eta jagiak dira.

Bakotzari berea. Eta bakotxari berea emotea besterik ezta, nire ustez, emetikaldean aurrelari, Bizkaia izan dogula esatea.

* * *

AZKUE ZANAREN LANA

Azkue andiari zor deutsogu. Azkue, irardausi andiko gizona, egin eta eragitekoa.

Nora ezta elduko aren eskua? Non ezta agertuko aren bultzakadea? Abade-lana, irakasle-lana, azterketa-lana, musika ta antzerti-arloa, zer ezta aurrean eroango?

Lenengoko baten, Arana Goiri legun, La Abeja aldizkaria sortzen dau. Arana'k erderaz eta Azkue'k euskeraz diardue.

Laster banandu dira eta bion aldizkaria errekarra doa.

Arana Goiri'k, euskerarako sustrai sendo biziagorik euki izan baleu, berak aterako eban, bai, euskera utsezko aldizkaria be.

Zer izan bear eban naiago?

Baiña bera zan lango euskaldun barri batentzat, aldatz-goregi egoan egiteko ori.

Erderea be bearrezko eban inguru erdaldundua euskalzaletuteko.

Bestelakoa gendun Azkue. Euskera bizi-bizia, iturritik arakoa, erion. Eta beronek sortuta, orra non agertzen dan, 1897-ko urtarrillaren iruan, EUSKALZALE. Eta ona asteroko onen asmo batzuk:

«Izen onegaz astean-astean urtengo dau argitara zortzi orrialdedun paper batek... Erderazko gauzarik ezta agertuko, guztia izango da euskeraz egiña... Izenak berak dinoanez, euskerea zabaldutea izango dau arazorik berarizkoena eta arduratsuen. Baita arimako egi egokiak bere, aleginez erakutsiko doguz. Ganera, ipuiñak, asmoak, ikusi-makusiak, Euskalerriko eta erdalerrietako albistak eta jazoerak; eta, noizean bein, zirt-zart, moduz ta polito, bear dabenari emotea bere izan leike».

Lenengoko geia, zenbakia, esku batek egiña da, Azkuek bakarrik. Urrengoe-tan esku asko agertuko dirala iragarten dau.

* * *

EUSKALZALE-KO IDAZLEAK

Esan bearrik ete dago? Astekari Azkue gaztearen euskerarik bizi daukagu.

Bein izen barik, bein ezizenen berraitio), berak emoten deutso biziata.

Azkue-ren ango lanakaz, gero, lantza, eta bestea, oraintsukoa, Ipuñak izan dira.

Baiña Azkue eztago bakarrik. Otsutsuenak ditu laguntzaile. D. Agirre biak, Iñarra, Artola, Alfonso Zabala, eta abar...

Antxe asi zan Kirikiño be idazten.

Idazle zarrentzat be bada lekua: Kutsu esaera zarrak. Antxe ezaguerazo eban Gaberako Ikuskizuna.

*

ATSEKABEZKO EGUNAK ETA ERIO

Iru urtez zorionezko bidaldia egin oker andi bakoa.

Eta gitxienez uste zanean, bapatean.

Astean, astean kalera zintzo zintzo egun egin ditu urten barik.

Zer jazo da?

Bilboko Gobernadore jaunak berak.

Zer dala-ta?

«Por no haber llenado ciertos requisitos».

Artikulu orrek edo lege orrek zer esan.

Aldizkari bakotxaren artezkarial aurkeztu bearke zituela, berak izenpean renean.

Zer zan Azkue'k egiten ebana?

Iru barik, gitxiago aurkeztu, ala berraitio. «EUSKALZALE»k ezta argitasurik Legea barri samarra zan, eta, bearrik egiten.

Bear bada, Gobernadoreak berak ezelango barririk euki, eta baten baten.

Bai, errien baten asarre samarra egin. «moduz ta polito polito», zirt-zarteko.

Eta Gobernadoreak eun pesetako «EUSKALZALE»ri.

*

EUSKERA TA ERDERA

Eta ori naikoa ez zala, beste agintari dau. Euskera utsean agertzen asteroko be ipuiñ-azo.

Orregaitik urrengo zenbakia, amara, euskeraz eta erderaz, euskerazkoak. Eta, olatxe, andik aurrera, urtea aurrera.

SORREREA

1897 - 1899)

geiena, Azkue beraren eskutikoa da,
beriena, zantsu eta giartsuena an

do bestegaz (musika danean, Aekue,
k andiena asterokoari.

ru bi agertu dira: TXIRRISTADAK,
ekoa.

iko euskaltzale eta idazlerik entzu-
rese Beitia, E. Arrese, Etxegarai anai
a, Urruzuno, Gerra, Mokoroa, Zama-

aberaz, Mogeldarrak, Uriarte, 1596-ko
kue'k Barrutia aramaioarraren Gabon

*
EA

da «EUSKALZALEK», edo, beintzat,

kulako plaustadea!
etorrena, 1899ko iraillean amabost

tskuak ezarri deutsoz ganera.

sitos de la vigente Ley de Imprenta»

utzen eban?
argitara urtetaldi bakoitzeko, iru ale
a, Probintzi bakoitzeko Gobernadore-
a-

nduago aurkestu, ala bapez aurkeztu?
emon.
ada, ez eutsen oraindik jaramon andi-

e ez eban ordurarte asteroko onen
salakuntzatik jakin eban lenengokoz.
lan alkatetxoan bat, astekari orretan,
bat artu ebalako.
un makurreko) multea ezarri deutso

*
keri bat, gobernadorekeri bat egiten
ri galazi, eukeraz idazten zana erderaz

ost egun geroagokoa, bietara agertuko
daraturik.
itu arte.

Gobernadoreak ez eban iragarri legearen zein artikuluk eskubidea emonik
agintzen eban ori. Bere kolkotik atera eban, antza, erabagi ori, bere barruko
borondate txarretik, euskereari eta euskaldunai eutsen amorrutik.

* * *

AITATU BARIK, ZIGORRA

Andia da, orraitio! Euskalerriko aldizkarien barri emon nai danean, eus-
kerazko aldizkariak ez dira aintzat artzen, diranik be ezta aitatuten, eztabe
izaterik.

Baiña eskua ezarri nai jakenean, zigorra emon nai deusenean, dagozan
legeak ez dira naiko eta Gobernadoreak bereak asmauko ditu, zigorra gogorrigo
egiteko.

Euskereak agintarien aldetik eztauala eragozpenik eta gogorkeririk izan
diñoenentzat, emen dakagu Bizkaia'n lenengo euskerazko astekari oni jazoa.

Atsekabe mingarri onetan, orraitio, pozgarritxo bat be izan eban Azkue'k,
astekariaren artezkariak: multearen zorra orniduteko, laguntasuna eskatu
eutsen irakurleai, baiña errealetik gora ez eban inok emon bear.

Zergaitik?

«Izen geiagok lekua izan daien».

Laster agertu ziran seireun inguru emoilte, 10, 15, 20 eta 25 zentimoko
eskupekoakaz.

Euren artean izen ospetsu asko: Franzisko Iturribarria, Alfredo Rochelt,
Miangolarra, Tomas Meabe, D. Agirre, Arrese Beitia, Urruzuno, Bustinza...
Bidasoaz bestaldetik be bai: Julien Heguy eta abar.

* * *

ERIoTZEA

Pozgarri izan zan irakurleen erantzuna.

Baiña «EUSKALZALE»k ez eukan olan bizitzerik.

Urtea amaitu arte, arpedunakaz zorrak garbitzeko aurrera jarraitu eban,
euskeraz eta erderaz gauza bera emonaz.

Baiña non zan, non gelditzen zan asieran asana: «Guztia izango da euskeraz
egia?»

Lotsari andiegia, baltzegia zan euskal-aldizkariari egiten jakona.

Egoak ausita gelditzen jakozan; lumak jausita gelditzen jakezan idazleai
be.

«Baretaldia etorri arte itxaron» egin bear zala inoan batek.

Etzan agertu baretaldi ori.

Idazle askoren lanak moztu bearrean aurkitzen zan inoz artezkaria.

Onan inotson bati: «Urrengo berba guztiai kurutzeta egingo leuskioe notbai-
tek, eta naiago dogu aurretiaz berbok kendu».

Egoera gogorra! Olan ezin zeitekean jarraituko. Eta urrengo urtean ixilik,
ilda gelditu zan astekaria.

Urte bi geroago, gauzak obero eginda egozan, nonbait.

Eta Azkue'k berak, astekari barri bat aterako eban, Ibaizabal izenekoa.

Ez eban luzaro iraun, urte bi.

Azkue orduantxe asi zan bere Iztegi nausia argitaratzeko lanetan, atzerrian
ain zuzen.

Andik, ain urrifietik ezin eutsi emengo astekeriaren biziari, ezin geiago
iraunazo.

Nik eztakit esker onik erakutsi jakon Azkue'ri eta merezi dauan añako
autormenik egin izan jaken berak sortutako astekari bioi.

Erdaldunak ez eze, euskaldunok aitzuegi daukaguzala-ta nago.

Esker obea zor deutsegula uste dot.

Eurak ez ete dira izan geroagoko astekariaren amama zarrak, ainbesteko
oiñaze eta erdi-miñen artean Bidasoaz onantzako euskal-albistariari sorrera
emonak?

L. AKESOLO'k

LIBURUAK

LAMIÑAK

Aita Onaindia'k geroago ta gogotsuago diardu idazten. Nondik ateraten ete dau idazle ospetsu onek ainbeste liburu idazteko astia?

Esku-artean daukagu LAMIÑAK idazpurua-rekin oraintsu atera dauan liburu eta entzun dogunez beste ale bat izango dau, bigarren zati bat, liburu eder onek.

Idazpurua irakurriaz, betiko leloa dala esan geinke, antziñako lamiña-ipuñen txorta bat.

Baiña liburu onek berezitasun aundia dauka.

Ipuin-txorta bat baiño geiago eleberri edo nobela bat dogu liburu au.

Oiz-gaiñean, erromeri-denporan ekaitza sortu eta gazte bikote bat mendian galtzen da. Illunetan argia ikusten dabe, Mari agertzen jake laguntzaille eta toki egokira daroaz gazteak, baiña ordain lez orrazi-billa erririk erri joateko eskatzen dautse.

Gazteak erririk erri joan ziran orrazi billa: Markiña'ra, Ondarroa'ra Armiña'ra, Lekeitio'ra, Itxas-aldera, Santimamiñe'ra, Foru'ra, Gernika'ra, Busturi'ra, Sukarrieta'ra, Mundaka'ra, Bermeo'ra, Gaztelugatxe'ra, Bakio'ra, Gorlitz'era, Butroi'ra, Getxo'ra, Lamiako'ra, Artxanda'ra...

Eta erri bakoitzean bertak jakingarriak eta lamiña-kontuak esaten dautsez gazteai.

Errez ikusten da zelako aukera ederra artu dauan idazleak errietako barriak irakurleai emoteko.

Bigarren alean, oraindiño agertu ez diran Bizkaiko erriak agertuko ei dira.

Azkenez beste au be esan bear: Liburu au Bilbao'ko Udal-Aurrezki-Kutxa'ren 1976'an «Resurrección María de Azkue» bigarren ipuin-saruketan bigarren saria jazo ebana da.

* * *

KARDABERAZ-TALDEA

KARDABERAZ'tarrak izango dira aspaldion libururik geien eta ederrenak argitaratu dituan argitaldaria.

Ona emen euren liburu-zerrenda:



KARDABERAZ LIBURUEN ZERRENDA

KARDABERAZ BILDUMA

| | P.V.P. | | P.V.P. |
|--|--------|--|-----------|
| 1 KARDABERAZ AITARI OMENALDIA Zenbait idazle (1972) 199 of. ... | 200 | 18 TXIRULURUKA-OLENRIAK Lola Iturrigarain (1977) 145 of. ... | 300 |
| 2 NEURRIZTIA Luis Egia (1972) 323 of. ... | 400 | 19 LEKUNATAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA. I (1977) 341 of. ... | 1.000 |
| 3 SUZE GORRI Fransiska Mendiz - "Uxola" (1973) 189 of. ... | 200 | 20 LEKUNATAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA. II (1977) 323 of. ... | 1.000 |
| 4 EZPALAK "Uxola" (1973) 191 of. ... | 200 | 21 LEKUNATAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA. III (1977) 399 of. ... | 1.000 |
| 5 AITONAREN IPUJAK Basilio Marua (1974) 140 of. ... | 150 | IDAZLAN GUZTIAK Obras completas de Manuel Lekuena en 3 vols. | |
| 6 ENBEKA ZULOAN ETA... Amatxio Albiu Ayerdi (1974) 339 of. | 300 | 22 1. Azok Literatuak (1976) 624 of. ... | 1.100 |
| 7 SHAKESPEARE - KOMEDIAK. I Larrañaga Gilermo (1974) 322 of. | 600 | 23 2. Eusko Etnografia | |
| 8 LANDARE-JAKINTZA (Botanika) Larrañaga, Gilermo (1976) 183 of. | 400 | 24 3. Kondaira (A) | |
| 9 GARTZI-XUMENO, ETA Amatxio Albiu Ayerdi (1975) 258 of. | 500 | 25 4. Kondaira (B) | |
| 10 EUSKALIRRIE ETA ERIOZTA Amatxio Albiu Ayerdi (1974) 290 of. | 400 | 26 5. Kultura | En prensa |
| 11 SHAKESPEARE - KOMEDIAK. II Larrañaga Gilermo (1975) 271 of. | 600 | 27 6. Olerkiak | |
| 12/13 SHAKESPEARE - DRAMAK. I, II Larrañaga Gilermo (1977) 469 of. | 1.000 | 28 7. Antzerkiak | |
| 14 SHAKESPEARE - TRAJEDIAK. I Larrañaga Gilermo (1976) 359 of. | 700 | 29 8. Kritika | |
| 15 SHAKESPEARE - TRAJEDIAK. II Larrañaga Gilermo (1976) 293 of. | 700 | 30 9. Apurak | |
| 16/17 GRAMATICA VASCA "Umandi" (des. vol.) (1976) 584 ta 208 of. ... | 1.100 | 28 EUZKAL BETERIKUNAK "Umandi" (1977) 222 of. ... | 500 |
| | | 29/30 COMPLEMENTO GRAMATICA VASCA "Umandi" (1978) 584 of. (condiciones a la vuelta) | |
| | | 31 LAS ETIMOLOGIAS VASCAS EN LA OBRA DE LUIS MICHELENA Juan José Arbeláiz (1978) 136 of. | 480 |
| | | 32 ENROMA'KO ELEIZIAREN ARAUDIA A. Ipele Larrañaga (1978) 472 of. | 1.000 |
| | | 33 IZTUETA'RIEN OLERKIAK Juan Garmendia Arzuabarrera (1978) 192 of. ... | 500 |

KARDABERAZ LIBURUKKAK

| | P.V.P. | | P.V.P. |
|--|--------|--|--------|
| 1 KARDABERAZ. 1 Zenbait idazle (1971) 34 of. ... | 50 | 6 ANEZKETA'KO FERNANDO Aldiz eta Ayerdi'lar Amalio (1975) 77 of. ... | 100 |
| 2 UME TXIKIENTZAKO SOINKETA Marcelino Ugarte Amalio (1975) 19 of. | 50 | 7 KARDABERAZ. 4 1975. Zenbait idazle (1975) 81 of. | 150 |
| 3 EUSKALERRI ZARBEO JAINKO TXIKIAK A. Arriola (1973) 49 of. ... | 50 | 8 "ERREAREN-ERREGIARI" + MEZA Fidela Mendizola (1974) 43 of. | 600 |
| 4 KARDABERAZ. 2 1973. Zenbait idazle (1975) 110 of. | 100 | 9 20 IPUI ETA... antzerkiak bat ikastola- rako A. Albiu (1975) 140 of. ... | 145 |
| 5 KARDABERAZ. 3 1974. Zenbait idazle (1975) 146 of. | 200 | 10 KARDABERAZ. 5 1976. Zenbait idazle (1977) 100 of. | 200 |

KARDABERAZ BAZKUNA

19.4an sartua, Gazteko Apirilgozian, Euskeraren alde,
1926an biridua, 19.6an berpidua,
Zerriakot Euskera jarar banan, kristau-burubide barruan (ez zabal) lan egiteko,
Bazkideak izan oia: erakunde bazkideak izan oia, erakundeak izan oia, erakundeak izan oia,
A) Erakunde guztiak bazkideak izan oia, erakundeak izan oia, erakundeak izan oia,
B) Erakunde guztiak bazkideak izan oia, erakundeak izan oia, erakundeak izan oia,
C) Erakunde guztiak bazkideak izan oia, erakundeak izan oia, erakundeak izan oia,
D) Erakunde guztiak bazkideak izan oia, erakundeak izan oia, erakundeak izan oia,
Argitatuak izan oia, erakundeak izan oia, erakundeak izan oia, erakundeak izan oia.

KARDABERAZ BAZKUNA

San Francisco, 1 - Apdo 83 - Tel. 55-11-40 - TOLOSA

«UMANDI»

| Complemento de la Gramática Vasca | Euzkal - Eliztiaren Betebidea |
|---|---|
| PRIMERA EDICION Dos volúmenes, 586 páginas 14 cassettes | LENENGO ARGITALPENA Bi idaztitan, 586 orrialde 14 galartzu txiki. |
| Precios en pesetas de venta al público | |
| Un volumen y 7 cassettes 4.200 | 7.500 Bi idazkiak eta 14 galartzu txikiak |
| Ambos volúmenes más 10 cassettes ... 7.500 | 4.200 Bi idazkiak eta 7 galartzu txikiak |
| Ambos volúmenes más 14 cassettes ... 1.300 | 1.300 Bi idazkiak (sabelek gabeko) |
| Cada libro (sin cassettes) 700 | 700 Bi idazkiak (sabelek gabeko) |
| Cada cassette 500 | 500 Galartzu txiki bakoitza |

DONE MILIANE

ARTZAIN

Errioxa'ko Naxera ondoan ba-dago Bertzeo izeneko erri bat.

Aren auzoko Kogolla'n jaio zan san Millan.

Ogei urte ebazala, itzi inguruko masti ta gari-tzak, eta bere aitaren ardiak arturik, an erritik egoaldera ageri diran mendietara joan zan artzain.

Txirula bat eroan eban berarekin, eta a jo ta jo egoten zan ardiak zaindu bitartean.

Eta bere txirula ori jo ta jo egoan egun batean, loak artu, ta ames bat izan eban. Jauna agertu jakon amesetan, eta auxe esan eutson:

—Millan, itzi ardioik, eta erdu Neugana.

—Nora baiña, Jauna?

—Or goiko koba orretara!

—Zertarako, baiña?

—Neure eremutar biurtzeko!

* * *

EREMUTARRA

Eta alan egin eban Millan gazteak.

Otoitzean asi bai, baiña, bereala aspertu zan.

Orduan, an bere erri ondoko gaztelu zarrean bizi zan Felices izeneko eremutarrengana biurtu zan.

Aren babesean irakurtzen ikasi, ta Liburu xantuetako Barri-Onaz jabetzen asi zan, eta otoitzean trebetzen.

Andik urte bira, Liburu Santuak besapean artu, ta lengo kobara abiatu zan. Eta an emon ebazan, otoitzean, berregei urte.

Lenengotan, bakar-bakarrik eta jendez ingurata, gero.

Bai, laster jakin eban inguruko artzaiñek eremutarren barria eta ara joiazan argi, aolku ta osasunaren eske.

* * *

ABADE

Arrigarri ta mirakulu asko egiten ebazala ta, laster iritzi zan aren izena Tarazona'ko gotzaiarengana.

Onak beregana deitu, ta abade egin ondoren, aren erri Bertzeo'ra bidaldu eban bertako parroku lez.

Ez luzaroko. San Millan'ek eliztarrek emoten eutzoazan amarrenak artu, ta beretzat gordebearean, erriko beartsuei banantzen eutsiezan.

Txarto artu eban ori aren abade-lagunek, eta gotzaiaren aurrean salatu eban.

Eta onak, bereala, len emoniko parroku-agintzaritza kendu egin eutson. Eta san Millan pozik baiña pozago, lengo bere basoko kobara biurtu zan.

* * *

JAINKOAREN MEZULARI

An, lengo koba orretan beste ames bat izan eban gure santuak. Eta auxe esan eutson Jaunak ames barri orretan:

—Nere erri au asko zabartu da. Jaunaren bideak itzi, ta aragi ta lurkoi atsegiñetara biurtu da.

Zoaz ba, Millan, eta esaiozu nere erri oneri, bere pekatuaz damutzen ez bada, sekulako zigorra elduko jakola.

San Millan zarra zan orduko, eta gurdi batera igorik, erriz-erri asi zan Jaunaren deia aldarrikatzen.

On artu eban batzuk santuaren mezua. Baiña, barre egin eutsoen geienak. Eta andik laster, Gototarren errege Leobijildo etorririk, Errioxako lurralde guztia sakaildu ta ondatu eban. Andik urte batera, egunez eta nekez beterik santuki il zan gure San Millan, 574 garrena zan.

* * *

SAN MILLANGO KONBENTUA

Konbentu eder bat eraiki eban, Kogolla'ko auzoan, eta antxe eortzi santuaren gorpuzkiñak. Andik gero, moroak bertora sartu ziranean, San Millan'go Santutegi au izan zan kristauen otoitz eta itxaropen-leku.

Naparroako erregeek moroak, azkenik, jaurti, eta ango errege Santxo Andiak (1030 garrenean) boli, urte ta pitxi ederrez egindako illobian sartu ebazan San Millan'en gorpuzkiñak, eta aldare nagusian jarri.

* * *

BIZKAIKO ABADIAK

Laster zabaldu zan San Millanen izena ta eraspina Euskalerra guzian eta ez Errioxa ta Naparroa'n bakarrik, baita Araba ta Bizkaia'n ere.

Eta santuaren eraspene onak arazo bereizi bat sortu eban Araba ta Bizkaian.

Gazteiz inguruan dagoan Armentia'ko elizbarrutipean egozan, 1084 bitarteraño, Araba ta Bizkaiko lurraldeak. Eta urte onetan Armentia'ko gotzai-barruti ori kendu, ta Kalahorrako gotzaipean jarri ebezen Araba ta Bizkaia.

Ez eban emengoek erabaki ori onartu izan; eta sekulako auziak sortu ziran arrezkerok: ez eban Kalahorra'ko gotzain eta aren ordeztakariak Bizkaian sartzen bere ixten; Araba ta Bizkaiko eliza asko Kogolla'ko San Millanen ardurapean jarri izan ziran, eta konbentu orretara bidaltzen eutsoezan, andik aurrera, euren eliz amarrenak.

Orduko agirietan ageri danez, eliz orreik «abadia» izena daroc eta «abadea», barriz, ango elizgizonak.

Eta ona emen gure auzia: benetako praileak ete ziran eliza orreitako parrokuak? Eta ortik bere ete dator Bizkaian bertoko elizgizonei «abade» deitzeke oiturea?

URKIOLA'k

Olerti-Eguna Larre'an

Larrea dogu Euskal-Olertiaren bizi-lekua, eta Aita Onaindia, gidari.

Bere ardurapean urtero batzen gara. Aurtan, be eta nire eretxiz 19'garren urteburua beteten zala, bertan eguraldi ozkirri, eta zatika bidean txingor, kaskabarrez zurituri egozala, Olerti-Egun pozgarria ospatu genduan.

Eguraldi gogorra, ori ta be biotzak berotasunez pil-pil.

Kristo Erregeren eguna, azillaren ogei ta seia, zan ain zuzen.

Aurtengo jaiia Arana ta Goiri'tar Sabin'en omenez aipatu dogu, bera il zanetik 75'garren urtemuga betetu da ta.

* * *

Gure Sabin euskaldun barri sutsua izan jakun, eta aberri-maitasunaz batera euskearearen sua be bere barne-muiñetan tinko kokaturik zituan.

Olerkari benetakoa agertu jakun, eta olerkari zan aldetik kontuan artu dogu.

* * *

Aita Santi Onaindia'k emon eban Mezea. Euskal-doiñu ta eresiz osoturikoa, beraz.

Bere itzaldi zirkingarrian gogoratu euskuzan Goiko Aita Jainkoaren edertasunak ludian zear nunai agertu oi jakuzala. Bera bait da edertasunaren jatorrizko iturri bizia. Izadia edertasunez beterik dogu, eta ederlanen egarria ta arnasa be Jainkoagandik datorku.

Guk aurtan Sabin'en eta bere olerkietan edertasunaren irudi bizi bat billakatuz, bere omenaldia gertatu dogu.

Datorren urtean, J. L., lenengoz omenaldia emon ba' geuntson be, Jokin Zaitegi Aitaren omenezko goratzarria barrero izango dogu.

* * *

Lau izan dira sariketak.

Lirika-saillean Paulin Solozabal izan da irabazle bere «Mendi-gain» izen-buruzko lan kutun sakonagaz.

Txalo ugariak jaso zituan, ederminez beteriko olerkia irakurri ondoren.

Iru aipamen be izan ziran: «Lau aizta», Jon Beiztegi'rena; «Eriopetuen gaba», Aurre-
Apraiz Balendin'ena ta «Burnia bai, uztairik ez», Jesus Gaztañaga'rena.

Arana Goiri'ren «Oroi-saillean» Aurre-
Apraiz agertu zan garaille.

Bere idaz-lana «Sabin'en gomutaz».

Argiro ta sentipen biziaz irakurri euskun bere lan aberkoi gozoa.

Agustin Zubikarai'ri bere lan ben eta unkgarriagaitik aipamen bat emon jakon.

Bertso-saillean, Paben Loidi'k artu eban lenengo saria, «Karrantza'ren goraberak» bertso-sailleagatik. Aipamena «Urrezko estaie-tan» izendaturiko lana bide zala, Jesus Gaztañaga'rentzat izan zan.

«Sariketa-saillean» Aita Onaindia'ren lana soillik agertu zan. 58 folioko lan berezia, Sabin Arana Goiri'ren olerkiak sakon eta argiro aztertuz.

Aita Onaindia'k gai onetzaz itzaldi gozo eder bat eskeiñi euskun.

Aurtan epai maikoak Fernando Artola, «Bordari» eta Martin Iturbe abade gaztea dira. Datorren urtean, Paulin Solozabal eta Aurre Apraiz aurtengo irabazleak izango dira noski.

Areto berberan merke be merke jaso genduzan Aita Santi'ren iru idazti txito jatorrak, bosteun pezeta eurakaitik ordaindu ondoren. Liburuen izen-buruak «Berjili'ren idaz-lanak osorik», aspaldi batekoa ziñez; «Euskal Elertia» ta «Lamiñak». Azkenengo bi oneik, labako ogei ta opil beroak bezela oraintsu urtenikoak.

* * *

Inguruetako bazkal-toki baten bazkaldu ta alaitasunezko giro egoki bat izateko batu giñan.

Tokia ezaguna zan eta bazkari ugari baten ondoren auspo-soiñu abesti ta alkar-izketa gozo ta biozkorak izan genduzan. Euskal aunda ta arnasa bizi batetik eta Iñaki Goitia abetzola, tenor, sutsuak bastetik, euskal bertso parebakoak abestu euskuezan.

* * *

Gero, amai - bidez, Aita Onaindia buru genduale, idazle batzuk, Pasiotarren ikastetxean geunken batzarrean, berandu-samar ba'zan be esku artzeko, Euba'ra zuzendu giñan.

Sortu-barria dan «BEBA», Bizkai'ko Euskera Biziaren Aldezko batzarra zan, eta Aita Fermin zuzendari zala, erabagi garrantzitsu batzuk artu genduzan.

Gaurkoz, baiña, luzatu nazanez, amaitzera noa.

Urrengora arte, urte barri zorionsua guztioi opa dautzuelarik.

ARREGI'tar Josu'k

ARANA-GOIRI-TAR SABIN

*Adiñik gustiz ederrenian
ogeta amazortzigarren
urtian il zan Sukarrieta'n
Euzkadi gaizkatzarren.
Nor dala baña, olan il zana?
Aita Sabin, euzkotarren
Irakastia etsai gustiak
Jarten zirala pozarren.*

ENBEITA'tar Kepa

AGUR!

Bai, agur dagiozu abandotar seme bioztun,
Euzkadi'ren semerik guren aintzaltsuenari:
Aberri bat, ezaumen barri bat emon euskun
seme gotor ta itzartzalle, Sabin aundiari.

Agur! Zentzuz, iakituriz, ekintza sugarriz
il-zoriturik zegon erriari, odol barri
bat, gogo barri bat, eralguntza goralgarritz
bide barri bat ezarririk gizonari.

Gizon eragille, gizon artez ta zindoa,
gogamen sendo, buru argiz iantzirikoa:
gizon itzaltsu, gizon maitagarri, errikoa,
aritzaren giartasun biziz biozturikoa.

Zugaitik euzkotarrok bizi-itxaropendu
gara ta, gogartu, erri baten maitasunez;
zugaitik izantzatu gara ta, osasundu,
aberri baten onuragai ta, eginkizunez.

Zuk ekarri euskuzun maitezko abotsean
erri zar baten etengabeko bizi-naia;
zuk ats-barritu zendun, egitazko egiñean
atxurturik aritz endekatuaren sustraia.

Bai, zure adimenak argitu euskun bidea
erakutsirik zeintzuk diran gure etsaiak;
zeintzuk gure alor ta egitazko anaiak,
zein, azkatasunik ezaren atsekabea.

Zure kolkotik gogor atara zan iñoizko
irrintzi ta oiurik eder maitagarriena;
betiraunezko abotsez ta, indar biziko
mintzoz, iñoiz entzundako deirik goigarriena.

Etsaiari bildurra sartzen eutson abotsa,
erriaren zain-buruz maiteberatzen dana;
egibidezko abots zoli, abots zorrotza,
arerio maltzur askorentzako zoramena.

Zure abotsaren ondorioz, zure deiaren
maitasunezko, gogamenezko ereintzara,
aberri suminduaren, aberri zapalduaren
barruan sortu zan, alako gogo-ikara...

Gure Erri zarra itzarkundezko eresiz
generatu zendun egitazko eragiñez
ta, egunik egunera, osasuna irabaziz
azal-barritu zan, egundoko izan-miñez.

Ota-larrak garbitu eta, ereintzarako
alorrek izerdiz busti ta, sakon atxurtuz,
uri-baserrietako, erririk errirako
ekintzatan ari ziñan lurra egokituz.

Baikorra, etengabea izan zan zure lana,
Aberriko ta Iainkozko eratura gogoz,

zure maitezko irrintzipean edatu zana
argikunde eder baten itxaropen osoz.

Aundizki semea izanarren erriaganatu
eta, ekintzatu ziñan gogor, zeure ogasun
zeure iakiturizko adimena isiotu
ta, opaldurik zeure bizitza ta osasun.

Nekearen nekez, ainbat sumindura, naigabez,
Erria suspertu zendun bai, egunoroko
agerkunde zabal, Erri-argitasunezko
eragin arduratsu, zeure gizon izatez.

Zuretzat Maixu, zuretzat bideak ez ziran
garaikundez larrosatu, ez ziran samurtu;
ez ziran zure iragarpenezko bizitzan
arantzak gitxitu, baizik esiak ugaritu.

Zuretzako saldukeriak eta zalakuntzak,
oñaze ugari izan zan ainbat kalbarioz,
etsai-bidezko espetxe ta loturakuntzak
zure itzarkundezko abotsaren ondorioz.

Iñundiko errazoi ez iñundiko lotsa,
petral askok indarkerizko loturamenez
estaldu gura izan eben zure abotsa
ondamendizko iokera zital, garratzenez.

Baiña, zuk Sabin, egiaren ispillu garbia
aurkeztu euskuzun ederrik, gizatasunez,
gure lurraren zauri gordin, zauri bizia,
euzkaldun lozorrotu askoren lotsamenez.

Itzarkundezko txirulaz, uri ta baserriz,
zure izantzaren burubide, nortasunez,
egunsenti eder bat nabaitzen zan argi biziz,
azkatasun eguzkiaren sorkunde legunez.

Ezkerrak zuri Erri bat daruagu biotzean
ta, Erri orren lazadura, oñaze, samiñak
ta, gañontzeko une pozgarri, atsegiñak,
Euzkalerri edo Euzkadi'ren izenean.

Orregaitik agurtu nai zaitut ta, goraldu
aizean ederrik dakusguzan ikurriñez;
orregaitik gazteriak maitez ots-egiten du
lurra bustirik azkatasunezko odolez.

Zure belgundari ta, zure olerkari abotsa
mendi ta ibarretan gaindu zan, uri-baserriz,
urturik euzko gogo-biotzetako izotza,
aberriz sugarturiko irrintzi pozgarritz.

Zuri abestuz aberriari dabestzat Sabin,
euzkeradun Euzkadi bat-mamin ta azalez
biotz ta arimazko Erri bat izan dadin
anai-arteko alkarguntza zabalez...

Ta, zuk opalduriko egoera azkatuan
loratu bedi euzkerea bizitzazko gunez,
usain gozo ta ederrezko emaitasunez
osasundurik Lurra gizarte sendatuan.

Oi, Sabin! Biziratu bedi gure mintzoa,
egintza zuzenez landuriko alorrean
indartu dadin gure arto, gari soloa,
maitezko gara-burutzarik ederrenean!

MUNIATEGUI'tar Sabin

ARGIBIDEAK (Jarraia)

Gaurko idazle batzuek —edo askok—, zein bizkaieraz, zein gipuzkeraz, zein batuaz diarduela, ez dakie ezin dogu (dugu), ezin naz (naiz) eta abar noz, eta ezin daiketu (dezakegu), ezin naiteke eta abar noz erabili bear diran, antza.

Beioaz, beraz, argibide batzuk; Altube maixuak irakatsia ulergarriago izan daki-gun.

- Ibilten asi eta bazabizala ikusi bada-gizu, Ibilli aal naz! esango dozu, eta ederto esanda, aal dozula zeuk ikusi dozu-ta, edo «cuando la potencialidad está puesta a prueba» Altube'k esango leukenez.
- Ogera joan eta agiñetako edo buruko miña-edo dala-ta, lorik ezin eginda dagoanak Ezin dot lorik egin! berez-berez esango dau, lo egin eziña une artantxe berak dakus-eta.
- Kontu bat ateraten jardun eta jardun egin eta atera barik itxi ezkeru, Ezin dot atera! esaten dozu, eta ondo baiño obeto esanda.
- Korapillo bat askatzen ekin eta ekin jardun izan dauanak eta ezelan be ezin askatu, Ezin dot askatu! esanda, albora jaurtiko dau.
- Bizkarrean eun killoko lepokadea artu eta, ozta-ozta ezpada be, bazoazala ikusi badagizu, Eroan aal dot! pozik deadar egingo dozu, aal dozula zeuk orduantxe ikusi dozu-ta.
- Baiña, bizkarrean artu eta, zureztat astunegia dalako, lepokadea lurrera jausi badakizu, Ezin dot eroan! esango zenduke.
Esaldi guztiok orain-aldiari dagokioz.
- Egun guztian lan-da-lan egin bear dozu-lako bazkalostekorik egiteko astirik ez badaukazu, Gaur ezin daiket(edo neike) bazkalostekorik egin esango dozu. Geroaldia da, ez orain-aldia. Ezin, beraz, Gaur ezin dot bazkalostekorik egin esan.
- Lan bat egiten asi baiño leen, La ori egin daiket(neike) esan bear litzateke.
- Ezin naz gaur arratsaldean Gernika'ra joan ez dago ondo esanda, «Belarrira» txartodator. Ezin naiteke gaur arratsaldean Ger-

nika'ra joan esatea askoz jatorrago dago euskeraz. Geroaldia da, ez orain-aldia.

- «Ezin jan det» eta «Ezin jan dezaket» esakunen edo adizkien artean bada alderik, Azkue'k ezetz esan eban, baiña. Jaten asi eta agoan min daukazulako-edo, ezin jan badozu, orduan Ezin jan dot(det)! guztiz ondo esango dozu. Bear eta bear egin bear dozulako edo nora-baitera joan egin bear dozulako-edo jan eziña etor badakizu, ostera. Ezin jan daiket (dezaket) (edo Ezin jan neike/nezake) ondo esanda dago.

Aor adibide batzuk adizki batzuen eta bestetzuon artean dagoan alde ikusi dagizun. Ainbeste eta ainbeste geiago ekarri daitezkez.

APUR BAT AZTERTUZ

Altube jaunak irakatsiari beste alderdi edo ikuspegi batetik begira bagakioz, ulergarriago ager dakiguke, bearbada.

- Itsuak ezin dau ikusi. Ez dauko giza-aalmenik orretarako. Eta ezin badau ikusi, ezin daike ikusi, jakiña. Baiña ori ondorio bat baiño ez da. Ezin dau ikusi esatea askoz geiago da ezin daike ikusi esatea baiño, giza-aalmenik eza edo «impossibilitas physica» dalakoa agiri-agirian agertzen da-ta.
- Baiña ikusmena euki ezkeru, beste arrazoi bategaitik zerbait ezin ikus badadi, ezin daiteke ezin dau ikusi esan, ezin daike (legike) baiño. Adibidez: Ziñe au ezin dogu ikusi esatea ez dago ondo, ezin daiketu (geike) ikusi esan bear da euskera jatorrez. Ikusmena badaukagu, eta ezin ikuste ori beste zerbaitegaitik da.
- Orregaitik, emen barbarik ezin dogu egin, guzurrik ezin dogu esan eta onelago esakuntzak «belarrian» min egiten da-be. Emen ezin daiketu (geinke) barbarik egin, ezin daiketu (geinke) guzurrik esan eta abar esatea, orixe da euskeraz ondo berba egitea. Berba egiteko edo guzurra esateko aalmena edo «possibilitas physica» dalakoa badaukagu, euki be, eta beste zerbaitegaitik da barbarik ez egite edo guzurrik ez esate ori.

Puxana'k

ESKEKOAK

Beti ezagutu izan doguz eskekoak gure artean baña urteotan batez bere uri aundietan, geituez doazela ezin ukatu.

Benetako zigor biurtu dirala gure parroketan esan daikegu.

Askok eta askok lotsa galdu dabela bere egi aundia da.

Milla eratarra, daukagun eta ez daukaguzan diruak guri aterateko era asko ditue; edo gaixorik dagozala edo nai ta nai ez urrunera joan bear dabela, edo ta irabazten dabenean dirua biurtuko dauskuela etab.etab.

Dirua aterateko era batzuk benetan barregariak dira.

Ona emen baten eskatzeko erea: Goizean agertu zan nire lan tokian ez gaztea ta ez zarra zan gizonezko bat, gose zala ta atxikiagaz eskean, emon jakon al nebana, baña arratsaldean ostera berbera beste bat lagun ebalu diru-eske.

Nik esan neban: Ez dago onetarako eskubiderik, ez noa egunean birritan bateri emoten.

Eta eskekoaren erantzuna.

Zuretzako txarrago emoten ez ba'daukuzu.

Zergatik niretzat txarrago ba?-Ara Bilbo zar ta inguruko ardantegietan gabizan eskekook erabagi bat daukagu artuta orain dirala urteak-Zu ilten zareanean danon artean, biotz onez eta eskar onez zure alde illeta bat egingo genduala parroketan, baña dirurik emoten ez ba'dozu, ez dago elletarik eta elizkizunik.

Zer egin olako urteeriagaz? Barre pizka bat eta aldana emon.

Badira eskekoai ezer ez emoteko diñoskuenak.

Ona emen andre dotore batek esan eustana:

—Ez emon dirurik orrei, edateko bakarrik artuten dabe ta.

Ara andra, —erantzun neutson—, eskeko geienok ez dauke ez indarrik, ez osasunik, ez lan egiteko albiderik eta ez lizunkerietan ibilteko gonorarik, orregaitik ardauaren atsegintxua artutea ez da pekatu aundia.

Eskekook jaio ziranean politak ziran.

Euren gurasoak zenbat ames euki ete ebezan!

Umetxo au noraño elduko ete da? iñoen. Jaki-tuna aberatsa, ederra etabar etabar izango da ori, uste eben gurasoak, baña gero edo eziketa txarra izan dabelako edo gizarteak bide okerretik eroan ditualako, zikin, iguingarri ta baztertuak egin dira, Zer egin eurakin?

Agintariak zuzendu bear ditue akats oneik, eurentzako lantegi bereziak egiñik, etxe gordelekuak atonduta etab, baña ori egiten ez dan bitartean guk, Kristau —maitasunagaz al dogun beste eurai lagundu bear dautsegu.

Egia da emen dabizan eunetik larogeta amabost kanpotarrak dirala (euskalduna eskean ibilteko lotzakorra dala) baña danak dira Jainkoaren seme ta danai lagundu bear.

Orain-arte orixe egin dogu (naiz ta baten batzuk kanpotarrak txarto artu ditugula esan) aurrerantzean bere orixe egin bear dogu.

Agintari, sindikatu ta politikariak atondu bear dabean gauza da baña egiten ez dabean lez, guk bakoitxak geure gizatasunagaz ta kristautasunagaz bigunduko dogu eskekoeen bizitza larria.

GALLASTEGI'tar Kauldi

GAZTEDIA TA KUNTZEA (SEKSUA)

Onetzaz, egun, asko be asko idatzi leike.

Aspaldi baten ez gurasoak ezta ere irakasleak ez eutsen euren seme ta ikasleai, itanduten ez ba' eutsen batez ere, ia tutik ere gai au dala ta..., esaten.

Oraingo kuntze edo seksuaren buruzko ezi-keta, zerbaiten oberuntz aldatu dala esan lei.

Ori ta be, zenbaketa edo estadistikai begira-tuaz, esan geinkela deritxat, Euskalerrria'n batik bat, bear litzaken neurrira altzeko urrats batzuk aurrerago bota bearrean gagozela ziur asko.

* * *

Gernika ta Bilbo'ko ikastetxeetan, ez ei da oraindiño aldi asko igaro, 14'tik 18'rako adiñean aurkitu oi diran neska-mutillakaz iritzi-azaltze batzuk egin ondoren, bai mutillak, baita neskak ere erantzun bardin samarrak emon ebezan.

Bilbo'n itanduriko neskak 226 izan ziran, mutillak ostera 116.

* * *

ITAUN-ERANTZUNAK

Iritzi-azaltzean eskatu oi diran erantzunak askotarikoak ezeze, luze-samarrak be ba diranez, oraingo ontan laburkiro esatera noatzue.

15 eta 16 urtekoak izan dira geien baten auren iritziak emon dabezanak, eta 18 urtekoen artean gitxi batzuk bakarrik izan dira itaunduak. Nesken arte-14 baiño ez.

Ona itaun erantzunen zerrendatxu bat:

Itauna: Noiz jakin zendun umeak zelan jaioten diran?

Gaztetxu geienen erantzuna da 10 urtegaz jakin ebela, % 26'k.

Ondoren, 9 ta 11 urtekoak zirala jakin ebenak datoz: % 17,9 ta % 15,3.

Itauna: Nogaz itz egiten dozu gai onei buruz? Seksu bardiñeko adiskideak dira me-zulari begikoenak, % 88,4; urrengo seksu ezbardiñeko adiskideak, % 77,7; urrengo gurasoak, % 41,4; eta lau-garren irakasleak, % 12,3.

Itauna: Gai onetzaz zuri nortzuk itz egitea gura zeunke?

Seksu-gaietan bereziak, espezialistak, diranak dira lenengoak, % 63,4.

Adiskidentzat da bigarren tokia, % 53,4.

Irugarrena gurasoentzat, baiña % 21,2 baiño ez.

Eta laugarrena irakasleentzat, % 8,3.

* * *

BESTE ITAUN BATZUK

Beste itaun gogortxuago batzuk lengo itaunai darraie, gaztetxuentzat interesgarri diran gaiak aztertuz. 38 gai guztiz.

Oneitariko gai batzuk kuntzetasuna edo seksua-lidadea, homoseksualidadea, sortze-aurkakoak, ez-kontz-aurreko artu-emonak, aur-galtzeak eta abar luze bat dira.

* * *

NIRE IRITZIA

Seksu-gai ontaz lenengo oinkadak gurasoen babespean artu edo emon bear dira.

Iñola be ez adin bardiñeko adiskideakaz.

Itsuaq itsuari ezin leikio laguntasun onuraga-rririk eskeñi.

Urteak aurrera, gai oneri buruz espezialistak, sendagilleak eta autor-entzuleak be parte artu leikeela uste dot.

Saso bakoitxak bere sasoiko onu bereziak bear ditu.

Arduratu zaitzeze ba, gurasook, zuen premiñazko eginbear au alik eta ondoen beteten.

Aldiak zelanbaiten aldatu diran lez, etxeko maitasunean ikasi dagiela umeak kalean urdiritsu ikastea egoki ez jakena.

Iradu ta prisa larregi barik geienetan, baiña beti egia seme-alabatxoan adin neurriaren araberan esaten dautsozuela.

ARREGI'tar Josu'k

EUSKERAZALEAK

Zatiketa ugariagorik inork ez dau gura, len be euskaldunak naikoa zatituta gagoz eta.

Baiña aspaldion entzun dogu, lendik izan zan zatiketa mingarri baten agerpena izan dala. Izkuntzaren zatiketa nabarmendu dala. Batez be Bergara'ko batzarrean egiteko zan batasuna lortu-eziñaren ondorena.

* * *

An Euskaltzaindi barria sortuko zalako zurrumurrua entzun zan, eta gaur zurrumurru ori, benetako barri sortu da.

Euskaltzaindi barria sortu da eta EUSKERA-ZAIÑAK dau izena talde barri onek.

* * *

Ete dauko EUSKERAZALEAK alkarteak zer-ikusirik talde barri orregaz?

EUSKERAZALEAK Alkarte lez ez. Ebatzi orri artzeko batzarrik ez da egin eta batzordeak ez eukan ori egiteko eskubiderik eta eskubidea izan ba'eban be ez asmorik.

Ba dira or gure Alkartea osotzen daben ainbat euskerazale, baiña ez alkartea alkarte lez.

Bergara'ko batzarrerera be joan ziran euskerazaleak, baiña eta ez Alkartearen ordezkari lez, euren gurariz eta eritxiz baiño.

* * *

Dana dala, EUSKERA-ZAIÑAK taldea sortu da, Erri-Akademia jaio da eta lanean diardu. Talde ori osotzen dabenen izenak be barri-bideetatik zabaldu dira.

Bizi luzea ta onuragarria opa dautsagu talde barri oneri' Izango al da erri-euskera biziak idar barria artu dagian bide zabala!

Euskera-zaiñak osotzen daben EUSKERA-ZAINTZA'ren barriak ZER onek be emongo ditu.

ZER DA

KUNTZEA? Bizidun-mota geienen iraupenerako, bizidun barriak sortzeko bearrezkoa dan izakera ta gorputz ezbardintasuna, seksua.

IRADUA? edo Igadua? Arin egin bearra, priesa.

MEZULARIA? Barri-emoillea edo ekarlea.

EZAUMENA? Ezagutzeko eskubidea edo almena.

ERAIGUNTZEA? Erakundea, gizartea eratzeke maillaka osotzen dan taldea.

ENDEKATUA? Enda-indarra galdu dauana, makaldua.

ADIÑA? Bizidunen urteak neurtzen dituan zenbakia, edadea.

GAIZKATU? Arriskutik edo galbidetik atera, salbau.

EUZKOTARRA? Jatorriz Euskalerrikoa, naizta izkuntzaz euskalduna izan ez.

BIOZTUTA? Biotz sendoa daukan gizonari esaten jako.

ONURAGAIA? Onurea edo «probetxua» ekarteko lakoa.

SENERATU? Oiturazko jokabide zuzenera biurtu.

BAIKORRA? Itxaropentsua, jazoerak alde onetik begiratzen dituana.

EKINTZATU? Ekintza edo lanbide batera sartu.

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaite.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

